



Egun on,

Honen bidez jakinarazten dizut Eusko Jaurlaritzako Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzak martxan duela Egoitza Judizial Elektronikoa (<https://egoitza.justizia.eus/webjus01-home/es>), otsailaren 24ko PRE/29/2017 Aginduaren bidez sortua. Egoitza Judizialaren bidez, profesionalak, administrazio publikoek, organismoek eta pertsona juridikoek alta eman dezakete Avantiusen, eta telematikoki jar daitezke harremanetan Euskal Autonomia Erkidegoan dauden epaitegi eta auzitegiekin.

Orain arte, administrazio publiko edo erakunde batek alta eman ahal zuen esku-hartzaile berezi gisa (prozedura judizial batean esku hartzen duen hirugarren gisa) edo pertsona juridiko gisa (telematikoki epatu daitekeen alderdi aktibo edo pasibo gisa).

Esku-hartzaile bereziak, berez, pertsona juridikoak dira, eta, Pertsona Juridikoentzako Egoitza Judizial Elektronikoa abian jartzean, migratu egin behar dira, prozedura judizial batean alta eman ahal izateko, hirugarren gisa (lehengo esku-hartzaile berezia) edo alderdi gisa (aktiboa edo pasiboa) jarduten duen pertsona juridiko gisa. Pertsona juridiko bihurtze horrek sarbide bakarrarekin lan egiteko aukera emango die, aurreko dualtasuna saihestuz, eta horrek erabiltzailearen esperientzia hobetuko du.

Hala, egoitza judizial elektronikoan duen jarduna gehiago egokituko zaio 42/2015 Legearen 273. artikulua 3. apartatuaren edukiari:

“Kasu orotan, Justizia Administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez esku hartzera behartuta egongo dira, gutxienez, honako subjektu hauek:

- a) Pertsona juridikoak.*
- b) Nortasun juridikorik gabeko entitateak.*
- c) Diharduten lanbidean jarduteko elkargo bateko kide izan behar dutenak, jarduera hori dela-eta Justizia Administrazioarekin egiten dituzten izapideetarako eta jarduketetarako.*
- d) Notarioak eta erregistratzaileak.*

e) Justizia Administrazioarekiko harremanak elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun baten ordezkari direnak.

f) Administrazio publikoetako funtzionarioak, beren kargua dela-eta egiten dituzten izapideetarako eta jardunetarako.”

Halaber, bat dator Justizia Zerbitzu Publikoaren Eraginkortasun Digitaleko Neurrien Lege Proiektuarekin:

“Bide elektroniko bidezko komunikazio-egintzak eta Komunikazio Egintzen Puntu Komuna. Justizia Zerbitzu Publikoaren Efizientzia Prozesalari buruzko Lege Proiektuan Komunikazio-egintzen praktikaren erreforma egin da, lehen ebatzea bitarteko elektronikoen bidez egiteko aukera emanez, Justizia Administrazioarekin bitarteko horien bidez komunikatzera behartuta dauden esku-hartzaileei. Lege honek erregulazio hori osatzen du, eta aurreikusten du Justizia Karpetaen bitartez emango zaiela ebazpena, nolana ere, bitarteko horien bidez komunikatzera behartuta ez dauden pertsoneri.”

Horregatik, jakinarazten dizut 2023ko ekainaren 5etik aurrera, arratsalde, parte-hartzaile bereziak pertsona juridikoetara migratuko direla, haien azpirolak eta erabiltzaileak mantenduz, bai eta alta emanda zeuden espediente judizialeetarako sarbidea ere. Data horretatik aurrera, espediente judizial batean erregistratu ahal izango zarete, bai hirugarren gisa (lehenengo esku-hartzaile berezia, orain arte egiten zenuten bezala), bai alderdi aktibo edo pasibo gisa, eta **jakinarazpen judizialak egoitza judizial elektronikoaren bidez jaso ahal izango dituzue, demandaren ebatzea barne, baldin eta prokuradorearekin edo abokatuarekin pertsonatuta ez ba zaudete. Zuzen-zuzenean aurkez ditzakezue monitorioak eta ordezkari prozesalik behar ez duten beste akzio batzuk.** Hori guztia, Justizia Administrazioan informazio- eta komunikazio-teknologiaren erabilera arautzen duen uztailaren 5eko 18/2011 Legearekin eta Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearekin bat etorriz.

Euskadiko egoitza judizial elektronikorako sarbidea honako hau da pertsona juridikoentzat:

<https://psp.justizia.eus/PSP/IdentificacionPersonasFisicasJuridicas.aspx>

Mesedez, kontuan izan sarbide hau izango duzuela zuentzat 2023ko ekainaren 6tik aurrera.

Aldaketa horri buruzko alegaziorik izanez gero, mesedez eskatu nahi dizut Eusko Jaurlaritzako Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeko, Profesionalei Laguntzeko Zerbitzuaren bidez (SAP): sap@justizia.eus edo 945 01 63 00 telefono-zenbakia. Jakinarazpenik jaso ezean, ulertuko dugu ados zaudela pertsona juridikoek egoitza elektronikoa erabiltzeko dituzten baldintzekin. Hona hemen baldintza horiek:

Demandak, salaketak, atestatuak, izapide-idazkiak edo bestelakoak zein organo juridikzional, bulego judizial edo bulego fiskali aurkezten zaizkion, hura da tratamenduaren arduraduna, prozedura judizialak kudeatzeaz arduratzen dena, eta datu pertsonalak erabiliko ditu lege prozesalak aplikatzen eratorzen den xederako.

Kontserbazio-epeak eta -irizpideak lege hauetan aurreikusitakoak izango dira.

Hirugarrenei (nazioarteko organo judizialak barne) datuak laga eta jakinarazi ahal izango zaizkie, soilik prozedura judizialaren izapideak hala eskatzen duenean edo legezko betebeharrak dagoenean. Betebehar hori pertsona juridikoaren izenean jarduten duen pertsona fisiko orori aplikatzen zaio, bai eta haren ordezkari edo ahaldunei ere, egoitza honen bidez haren izenean jarduketa telematikoak egiteko gaituta badaude.

Datu pertsonalak irispidean izateko, zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko eskubidea eta haien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko eskubidea lege prozesalen arabera gauzatuko dira, eta eskubide hori kasu bakoitzean tratamenduaren ardura duten organoen aurrean baliatu beharko da. Era berean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari erreklamatzeko eskubidea ere baliatu ahal izango da, kontrol-agintaritza den aldetik, jurisdikzio-helburuak dituzten tratamenduei dagokienez.

Zure datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, prozeduraren inprimaki honen organo arduradunari eska diezaiokezu, bai eta egoitza judizial elektronikoa kontsultatu ere.

KOMUNIKAZIO-EGINTZAK

Aurrerantzean, komunikazio-egintzak Egoitza Judizial Elektroniko honetan egin diezazkizate eskatzen dut, prokuradoreak ordezkaturik ez nagoen kasuetan, baita lehen epatzea edo zitazioa denean ere. Jakitun naiz jakinarazpenek ondorio guztiak izango dituztela eskura jarri zirenetik 3 egun natural igarotakoan, nahiz eta edukira sartu ez.

Jaso ezazu agur bero bat.

Javier Landeta García
Director de Justicia Digital e Infraestructuras /
Justizia Digitalaren eta Azpiegituren Zuzendaria